



Udalak neurri berriak bultzatu ditu

etxebizitza-politika indartzeko

HERRIA

Udalak **13.172.435** euroko aurrekontua aurkeztu du 2025erako.

2-3

UDALA

Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesuak aurrera darrai.

9


IRITZIA

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, zer neurri zehatz har daitezke Astigarragan?

11

Udalak 13.172.435 €-ko aurrekontua aurkeztu du 2025erako

2025ko udal aurrekontuak 13.172.435 euro izango ditu, iaz baino %7 gehiago. Igoera horren arrazoia diru-sarreraren gorakada izan da. Herritarrentzako politika eta zerbitzu sozialen atalak (Gizarte Zerbitzuak; Berdintasuna; Kultura, Jaiak, Gazteria; Kirola; Euskara eta Hezkuntza) aurrekontu osoaren %46 hartzen du, hau da, iazkoa baino %7 gehiago.



Diru sarreraren gorakada

Aurrekontuan 813.483 euroko igoera, diru-sarreraren gorakadagatik gertatu da, batetik, Gipuzkoako Aldundiak herrien artean banatzen duen Foru Funtzaren igoeragatik (204.308 euro gehiago); bestetik, udal zergen eta tasen igoeragatik eta horiek eroldan izan duten eguneraketarengatik (516.625 euro gehiago).

Era berean, gastuak eta inbertsioa ere igo egingo dira 2025ean. Zehazki, pertsonal gastuak %5 egingo du gora, hainbat arrazoirengatik. Batetik, langileen soldata %3 igotzea aurreikusi da eta bestetik, hainbat lanpostu berri sortu edo hainbat lanposturen jardunaldia luzatuko da. Inbertsioari dagokionez, %15eko igoera izango du eta, bereziki, bi proiektu baldintzatuko dute: kiroldegiaren eta euskaltegiaren berritze lanak.

Udal gizarte zerbitzuak indartzeko apustua

Sail guztiak modu orekatuan indartuko dira. Gizarte Zerbitzuen Sailaren aurrekontua 1.287.084 eurokoa da, iazkoa baino %6 handiagoa, inoiz izan duen kopururik handiena. Gizarte zerbitzuek aurrekontu osoaren %9,77 izango dute; eta %10ean zehaztu ohi izan da bikaintasunaren ehunekoa. Hala, egungo zerbitzuak indartu eta berriak sortuko dira. Azpimarragarria da, arlo honetan, etxerik ez dagoen laguntza zerbitzuaren baldintzak hobetuko direla. Bestalde, mendekotasun arriskuan dauden eta mendekotasun txikia duten adinekoen zuzendutako eguneko arreta zerbitzu berria martxan jartzeko 10.000 euro erabiliko dira. Adingabeentzako dirulaguntzak eta eskuhartze psikosoziala ere indartuko dira, eta larrialdi laguntzarako 5.000 euro gehiago erabiliko dira, 110.000 euro guztira.

2024 guztira:

12.359.152€

2025 guztira:

13.172.435€

+%7

Berdintasunaren arloan, bereziki aipagarria da Emakumeon Etxearen dirulaguntzan egindako igoera, 51.000 eurotik 70.000 eurora, herrian berdintasun arloan egiten duen lana indartzeko helburuarekin. Bestalde, Toki Garapena sailean, Dolareak proiektu berria garatzeko 15.000 euro bideratuko dira; honi esker, herritarrek doan emandako sagardogintzako tresnak berreskuratzeko lanak abiaraziko dira.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailean gazteentzako alokairurako laguntzak sortuko dira eta Astigarraga hirigune tentsionatu izendatzeko eskaera abenduan egin zuen udalak. Obrak eta Zerbitzuak Sailean, eta Irisgarritasunaren arloan, aipagarria da laster amaituta egongo dela Apeztegi-ko igogailua, eta irisgarritasuna hobetzeko beste hainbat ekintza ere egingo direla, besteak beste, udaletxean ate automatikoa jartzea eta Emakumeon Etxeko sarrera eta komunak egokitztea. Bestalde, Latxaga-Olabide bide-ko lanak ere amaituko dira.

Kultura, Jaiak, Gazteria eta Kirola Sailak %36ko igoera izango du. Kiroleko igoeraren gehiengoa, kiroldegiaren obrak eragingo du. Kulturaren arloan, aurtan ere kultur programazioa indartuko da, baita irakurketa sustatzeko ekintzak ere.

Dirulaguntzei dagokionez, orain arteko eutsiko zaie (baserriarren aldeko laguntzak, alokairurako laguntzak, eskola garraiorako laguntza, Kontxa Etxeberria beka eta familientzako gizarte-laguntzak) eta beste hainbat indartuko dira. Guztira, dirulaguntza izendun eta lehia bidezkoak kontuan hartuta, %11 igoko da aurrekontua, orotara 1.096.900 euro.



- Euskara (95.000€)
- Kirola (177.100€)
- Kultura eta jaiak (174.200€)
- Hezkuntza (245.500€)
- Gizarte arloa (188.600€)
- Berdintasuna (95.000€)
- Arlo sozioekonomikoa (114.500€)
- Beste batzuk (7.000€)

2025: inbertsio estrategikoen urtea
Aurtengo inbertsio esanguratsuen kiroldegian egingo da, 750.000 euroekin. Obrak 2025eko udaran hasiko dira. Dauden instalazioen eta zerbitzuen kalitatea hobetu eta berriak sortzearekin batera, sarrera egokituko da irisgarria izan dadin.

2025ean egingo den bigarren inbertsio esanguratsuen euskaltegiaren lokal berria izango da. Egun Herri Eskolak erabiltzen duen Nabarra Oinatz-eko lokalean egokitzapen lanak egingo dira, Astigarragako euskaltegiaren egoitza izan dadin. Dagoeneko proiektua idazten ari da Udala eta, honi esker, Kultur Etxe zaharra hustu eta gazteen erabilerarako bideratuko den espazioa sortuko da bertan.

Hurrengo inbertsio handiena, Europar Funtsen laguntzaz, uraren zikloa digitalizatzeko egingo dena da, 122.000 eurokoa. Horri lotuta, ur kontagailuak aldatzen jarraitzeko 35.000 euroko inbertsioa ere egingo da.

Horrez gain, bidegorri-sarea zabalduko da. Bidegorri Kale Nagusian eraikiko da, Anuskarako norabidean, DBHko ikastetxea eraikitzen deneko nerabeak bizikletekin bertara iritsi ahal izateko. 2024an aurreikusitako 200.000 euroei, 2025ean 40.000 euro gehituko zaizkie, hortaz.

Azkenik, gazteen sormena garatu eta herritar askoren eskaerei erantzuteko, 35.000 euro gehituko zaizkie 2024an bideratzen ziren 150.000 euroei, 2025ean entsegu gelak pilotaleku azpian kokatzeko.

Aipatutako inbertsioez gain, hainbat proiektu idazketa aurreikusi da: udal lokalena (egun Herri Eskolak erabiltzen duen lokala eta banketxea zena batzea); Ergobiako Pagoagako lokalean ludoteka eta auzo-biltokia egokitztea; Juangitene plazako ur-arazoak konpontzea; Ergobiako plazaratzea eta auzoko sarrera-gunea egokitztea; Txalako bidegorria eraikitzea; Santiagomendiko II. fasea osatzea; Errekalden aparkalekua egitea; eta kultur etxe zaharrera doan igogailua jartzea.

El Ayuntamiento ha presentado un presupuesto de 13.172.435 euros para 2025

El presupuesto municipal de 2025 contará con 13.172.435 euros, 813.483 euros más que el año pasado, lo que supone un incremento del 7%. Este aumento se debe a la subida de los ingresos a causa, por un lado, del incremento del Fondo Foral, aportación que la Diputación reparte entre los pueblos (204.308 euros más) y, por otro, a la subida de los impuestos y tasas municipales y a la actualización de su censo (516.625 euros más).

Con los presupuestos de 2025 se realizarán inversiones estratégicas de los próximos años. La inversión más destacada será la reforma del polideportivo (750.000 euros). Las obras comenzarán en verano de 2025 y traerá consigo la mejora de la calidad de los servicios existentes, así como la creación de nuevos servicios e instalaciones. Además, con este proyecto se realizará una entrada accesible y se construirá un polideportivo adaptado. La segunda inversión más destacada es el nuevo espacio del euskaltegi. En el local de Nabarra Oinatz que actualmente utiliza la Herri Eskola se realizarán obras de acondicionamiento para que sea la nueva sede del euskaltegi de Astigarraga. Otras inversiones significativas son la digitalización del ciclo del agua y la ampliación de la red de bidegorris en Kale Nagusia (centro de ESO).

El Ayuntamiento apuesta un año más por reforzar los servicios sociales municipales e incrementar su calidad. Muestra de ello es que el 10% del presupuesto se invertirá en servicios sociales, porcentaje que según los expertos es un indicador de excelencia. Junto a ello, en 2025 se pondrá en marcha el plan de cuidado y el ayuntamiento tendrá como objetivo definir el modelo de cuidados que quiere en el pueblo y comenzar a dar pasos a este respecto.

1 Avance en las obras del segundo canal de abastecimiento de Añarbe

Las obras del segundo canal de abastecimiento de Añarbe avanzan con la instalación de una tubería de 1.100 mm de diámetro a lo largo de 5 km, desde el río Urumea hasta la ETAP de Petritegi, que suministra agua a Donostialdea, incluida Astigarraga.

Los trabajos han avanzado desde Hernani, pasando por Sagardotegi Zeharra y el camino de Oiarbide, además de las zonas de Anuska e Iparralde Bidea. La conexión de los tramos en Arkubide está prevista para marzo.



2 Astigarragak eraso matxisten aurkako neurriak indartu ditu txotx denboraldian

Otsailean eta martxoan, Astigarragak eraso matxisten aurrean arreta emateko eta esku hartzeko neurriak aktibatu ditu. Ekimenen artean, nabarmentzekoak dira ostiral eta larunbatetan 18:00etatik 06:00etara telefono bidezko arreta emango dela Hernanin eta Astigarragan (638 206 586), Astigarragan ere larunbatetan 18:00etatik 04:00etara aurrez aurreko zerbitzua eskainiko dela Emakumeon etxean. Gainera, Udaltzaingok presentzia indartuko du eta herriko hainbat pertsonak 'Nik sinesten dizut' txapa eramango dute biktimei laguntza eta baliabideak eskaintzeko.

Honekin batera, Astigarraga eta Hernaniko Udalek "Gure etxean zaude, zaindu" kanpaina bateratua aktibatuko dute. Kanpaina ikusarazteko hainbat euskarri jarri dira herrietan. Kanpaina horrek, txotxak duen inpakturaren aurrean herri horiekiko eta bertako biztanleekiko errespetua sustatzea bilatzen du. Bisitarien kopuru handiak bizikidetzara-arazoak eta garbiketan eta garraioan gastu gehigarriak sortzen ditu, eta, horren aurrean, bi udalerriak kudeaketa hobetzeko eta sagardoaren kultura urte osoan zehar sustatzeko neurriak lantzen ari dira.

3 El ascensor de Apeztegi abrirá próximamente para mejorar la accesibilidad en Astigarraga

El nuevo ascensor de Apeztegi, que conectará la plaza Apeztegi con Foru plaza, abrirá próximamente, convirtiéndose en el segundo ascensor público de Astigarraga tras el de Arrobitxulo. Su construcción es un paso clave para mejorar la accesibilidad en el municipio, facilitando el acceso a infraestructuras esenciales como el Ayuntamiento, el polideportivo, la Herri Eskola y el frontón.

Para integrarse en su entorno natural, el ascensor cuenta con dos lados opacos y dos vidriados que reflejan la vegetación de la plaza y el entorno verde de la zona. La obra, realizada por Construcciones Urdinberri, S.L., ha supuesto una inversión de 446.240,85 euros (IVA excluido).




4 Astigarragak Geuretik Sortuak ekimenaren hirugarren edizioan parte hartuko du

Astigarraga Geuretik Sortuak ekimenaren hirugarren edizioaren parte izango da. Ekimen hori Udalbiltzak bultzatu du, euskarazko sorkuntza artistikoa sustatzeko. Aurreko bi edizioen ondoren, proiektuak 2025ean eta 2026an jarraituko du, guztira 30 proiektu babestu ko dira, orain arteko kopururik handiena.

Astigarragaren kasuan, Zelako antzerki konpainiak OROHITZ garatuko du, oroitzapenetan eta hitzetan oinarritutako helduentzako euskarazko antzerki ikuskizuna. Antzerkiak azken mendeko historia eta Euskal Herriko erreferenteak aztertuko ditu, amona baten eta bere biloben arteko harremanaren bitartez, eta Astigarragako pertsonaia nabarmenak izango ditu onarri.

Euskarazko artea euskal lurralde guztietara hurbildu nahi duen kultur zirkuituaren barruan kokatzen den obra hau prestatzeko, Zelako taldea Astigarragan izango da hainbat egunetan.



URRUNTZE-AGINDUAK: 8 Urruntze-agindu berri

6 Emakumeentzako aholkularitza juridikoko udal zerbitzua berriz martxan

Emakumeentzako aholkularitza juridikoko udal zerbitzuak bere jarduerari ekin dio berriro, eta hilean behin, astelehen arratsalde, zerbitzu hori eskainiko da Emakumeon Etxean. Arreta doakoa, konfidentziala eta pertsonalizatua da, eta ikuspegi feministarekin lan egiten duen aditu baten laguntza eskainiko du.

Helburua da espazio seguru bat eskaintzea, eskubideak ezagutzeko, gatazkei aurre egiteko eta eskura dauden baliabideak detektatzeko. Saioak presentzialak dira, 16:00etatik 19:00etara, emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com helbidean edo 648 41 71 57 telefonoan hitzordua eskatuta.

2025eko hurrengo saioak martxoaren 17an eta apirilaren 7an izango dira, besteak beste. Zerbitzuari buruzko informazio gehiago:



5 Astigarragako Udalak 13 indarkeria matxista kasu artatu zituen 2024an

2024. urtean zehar, Astigarragan indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko zerbitzuek 13 kasu erregistra-tu zituzten, utarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bildutako datuen arabera.

Kasu gehienetan, bikote harremanaren baitan gertatu ziren erasoak (10 kasu); beste batzuetan, berriz, erasotzailea bikotekide ohi bat izan zen (1), ahaide bat (1) edo biktimaren inguruko beste pertsona batzuk (3) izan ziren.

Biktimen adin tartea 14 eta 64 urtekoa da, eta gehienak 31 eta 40 urte artekoak dira (6 kasu). Familiaren egoerari dagokionez, artatutako emakumeetatik bostek ez zuten seme-alabarik, eta gainerakoak adingabe batekin edo gehiagorekin bizi ziren.

Datu horiek islatzen dute indarkeria matxista presente dirauela udalerrian, eta garrantzitsua dela prebentziorako eta biktimei laguntzeko baliabideak indartzea.



Emakumeen historia berreskuratzeko laugarren ikerketa-beka deituko du Udalak

2020an, Udalak Astigarragako emakumeen historia berreskuratzeko ikerketa-bekaren lehenengo edizioa martxan jarri zuen Astigarragako emakumeen historia jaso, landu eta herritarren esku jartzeko helburuarekin.



Bekaren lehenengo edizioak (2020), XX. eta XXI. mendeetako emakumeen gorputz praktiken inguruko ezagutzak zabaltzea izan zuen hizpide. Amets Castrejana hernaniarrari egokitu zitzaion lehen edizioko beka, eta honek "Astigarragako emakumeen historia hurbila, gorputz-praktiken bidez azaldua (XX-XXI. mendeak)" izenburuko liburua argitaratu zuen Udalaren eskutik. Agerkariak, Astigarragako emakumeek utzitakoak jasotzen eta erakusten ditu, herriko hainbat emakumeren ilustrazioz lagunduta. Liburua udalaren webgunetik jaitsi daiteke PDF formatuan.

Bigarren deialdian (2022), emakumeek Astigarragako saltoki txikietan, merkaturatze-zirkuitu laburretan eta lehen sektoreko produktuen salerosketan izan zuten zeregina aztertu nahi izan zen. Deialdi honetan, ordea, ez

zen eskaerarik jaso eta beka hutsik geratu zen.

Hirugarren aldian, 2023an, Astigarragako emakumeek herriko bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta politikoari eginiko ekarpena balioan jarri nahi izan zen. Aurkeztutako proiektuetatik, Eider Ugarte eta Andrea Loinazenarenak lortu zuen puntuaziorik altuena. Bikote astigarrak hilabete honetan entregatuko du ikerketa eta urte amaierari begira dibulgazio ekintzak egitea aurreikusten dute.

Bekaren laugarren edizioa uda aurretik irekitzea aurreikusten du Udalak. "Beharrezkotzat ikusten dugu beka herriko emakumeen historia hurrengo belaunaldiei transmititzeko eta emakume horiek herriari egindako ekarpenak aitortzeko", adierazi dute Udaletik.

Deialdiaren hainbat datu aipagarri

Beka eskatzaileak: 18 urtetik gorako norbanakoak (Astigarragan erroldatuta egotea ez da ezinbesteko baldintza) edo horretarako propio osatutako nortasun juridikorik gabeko taldeak.

Ikerketaren gaia: Ikerketa-esparrua irekia da, eskatzaileak erabaki dezala ikerlanaren gaia, betiere bekaren xedearekin bat etorritz.

Ikerketaren iraupena: 18 hilabete gehienez.

Bekaren zenbatekoa: 10.000 euro.

Beka-eskaerarekin batera, ikerketa-proposamen bat aurkeztu beharko dute eskatzaileek eta epaimahai batek baloratuko ditu. Ondoren, ikerlanen aukeraketa burutuko du epaimahaiak.

El Ayuntamiento publicará la 4ª beca para recuperar la memoria histórica de las mujeres

En 2020, el Ayuntamiento puso en marcha la beca para recuperar la memoria histórica de las mujeres con el objetivo de recoger, elaborar y poner a disposición de la ciudadanía la historia de las mujeres de Astigarraga. Antes de verano, el Ayuntamiento abrirá la cuarta edición de la beca, con una cuantía de 10.000 euros y con una duración máxima de 18 meses.

La primera edición dio como resultado la publicación del libro 'Historia reciente de las mujeres de Astigarraga explicada mediante prácticas corporales (siglos XX-XXI)' (disponible para su descarga en la web del Ayuntamiento). La segunda convocatoria (2022) quiso analizar el papel de las mujeres en el pequeño comercio, pero no se recibieron solicitudes y quedó desierta. La tercera edición (2023), buscaba dar a conocer a mujeres referentes de Astigarraga y la propuesta de Eider Ugarte y Andrea Loinaz fue la mejor valorada: "La investigación hará visibles las aportaciones de mujeres astigarragas que han sido invisibles durante muchos años", comentan. Gracias a este proyecto, la ciudadanía podrá conocer a finales de año la vida de 15 mujeres a través de diversas acciones divulgativas.



Maria Josefa Goikoetxea Iturralde (Petrítegi sagardotegikoa). Gipuzkoan gidabaimena ateratu zuen lehen emakumea

“Ikerketak ikusaraziko ditu urte askoan ikusezin izan diren emakume astigartarren ekarpenak”

Andrea Loinaz eta Eider Ugarte astigartarrak izan ziren Astigarragako emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko III. ikerketa-bekaren jasotzaileak. Udalaren mandatua XX. eta XXI. mendeetan herriko bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta politikoan izandako emakume erreferenteak bilatzea izan zen, eta bi lagunek herriko 15 emakumeren biografia bilduma osatu dute.



Eider Ugarte Pedagogian graduatua eta Musikoterapiako masterra burututakoa da, eta Andrea Loinaz Gizarte Lana eta Gizarte Hezkuntza graduatua.

Nola sortu zen bekara aurkeztearen ideia?

Astigartarrak gara eta herriko emakumeekin horrelako lan bat egitea polita, garrantzitsua eta motibatzailea irudituz ginen. Bien artean hitz egin genuen eta apurka hasi ginen imajinatzen nolakoa izan zitekeen proiektua, eta irudikatutakoa gustatu zitzaigun.

Proiektua aurkeztu genuenean ez genuen uste guri emango zigutenik. Berdintasunaren alorrean ez genuen esperientziarik, unibertsitatek ateratu berriak ginen... Baina aurkeztu eta azkenean hiru proposamenen artean gurea aukeratu zuten.

Zein da lanaren helburua?

Deialdian aipatzen zen gakoetako bat Astigarragako emakume erreferenteak ziren. Guk pentsatzen dugu erreferente izateko ez dagoela zertan gauza aparteko edo handirik egin. Egunerokoan gauza txikiak eginda ere, erreferente izan zaitezke eta bazara. Garrantzia horri eman nahi izan diogu.

Udaletxearen sarreran herriko seme-alaba kuttunen argazkiak daude. Guztiak gizonetakoak dira, Kontxa

Etxeberrira izan ezik. Eta Astigarragako emakumeak, zer? Egia da askotan emakumeek ezin izan dituztela egin hain gauza ikusgarriak, eremu pribatu geratu behar izan direlako. Orduan, gure helburua bada Astigarragako emakumeek egin dituzten ekarpenak ezagutaraztea.

Zein izan da ikerketa-prozesua?

Hasieratik garrantzi handia eman genion herriaren parte-hartzeari. Lan hau herriarentzat da eta horregatik ikerketa ere herritik sortzea nahi genuen. Gu biok egin genezakeen emakumeen zerrenda bat, baina irudituz ginen politagoa izango zela jendearekin elkartu eta beraiek esatea zein izan zitezkeen erreferenteak.

Aurkezpen saio bat egin genuen 2023ko irailean eta gerturatu zen jendearekin izenen zerrenda bat osatu genuen. Jende gehiagorengana iristeko helburuarekin, Galtzaur Elkartearekin bildu ginen eta beraiek ere informazio asko eman ziguten. Hau guztia lehengo pausoa izan zen, erreferenteak aurkitzeko.

Hurrengo pausoa jendea elkarrizkatzeko izan zen. Hasierako zerrendatik, batzuk alde batera utzi behar izan genituen ondorengo gabe hil zirelako, informazio faltagatik, etab. Eta behin betiko zerrenda izan genuenean, beraiekin bildu eta elkarrizketak egin

genituen. Azkenean 15 emakumeren biografiak jaso ditugu.

Zer aurkituko du jendeak?

Benetan Astigarragako emakumeen bizipenak ezagutuko ditu jendeak, nola eragin zuten inguruan, egin zuten sare-lana... eta sorpresa asko. Elkarriketetan ezagutzen ez genituen gauza interesgarri asko ateratu dira.

Nola izango dute emakumeen historien berri herritarrek?

Orain ikerketaren txostena entregatuko dugu eta, Udalarekin batera, zabal-kunderako aukerak aztertuko ditugu. Argi daukagu ikerketaren helburua herritarrentzako zerbait egitea izan dela beti, eta horretan saiatuko gara: zerbait bisuala, ulerterraza... egin nahi dugu. Dibalguazio ekintzak urte bukatu egingo ditugu ikusarazteko urte askoan ikusezin izan diren emakumeen ekarpenak.

Zein da beka jaso ondoren egiten duzun balorazioa?

Azkenean urte eta erdiko lana izan da eta momentu batzuetan zaila izan da motibazioa mantentzea. Oso motibatuta hasi ginen, baina momentu askotan ataskatuta sentitu gara. Orain berriz konektatu dugu aspektu politekin, eta lana bukatuta dagoela, esperientzia oso polita izan dela esan dezakegu.

Udalak etxebizitza-politika indartu du neurri berriekin



Astigarragako Udalak aurrerapauso garrantzitsua eman du tokiko etxebizitzaren kudeaketan, udalerriko higiezinaren merkatuaren gaineko presio gero eta handiagoari aurre egiteko neurri multzo batekin, besteak beste, hiri tentsionatu izendatzeko eskaera, gazteentzako alokairurako laguntzak eta etxebizitza turistikoen erregulazioa.

Etxebizitza-politika Astigarragako Udalaren lehentasun nagusietako bat da. Azken urteotan, etxebizitzaren gaia arazo larria bihurtu da, eta udalerria Donostiatik gertu egoteak are gehiago areagotzen du presio hori. Udalak erabaki du arazo horri aurre egiteko neurriak ezartzea eta politika eraginkorra garatzea, erronka horri ahalegin bereziak eskainiz.

Hiri tentsionatu izendatzeko eskaera Eusko Jaurlaritzari

Astigarragak ofizialki eskatu dio Eusko Jaurlaritzari udalerria hiri tentsionatu izendatzeko. Eskaera hori udalerrian etxebizitza prezio irisgarrian aurkitzeko zailtasuna erakusten duen azterketa batean oinarritzen da. Azken urteetan, alokairuaren eskariak nabarmen egin du gora eta alokairuko prezioak %23,1 igo dira 2017 eta 2022

artean, inflazio tasa nabarmen gaindituta. Familia astigartar baten diru-sarreraren %30 baino gehiago etxebizitza-gastuak ordaintzeko erabiltzen da.

Egoera horren ondorioz, udalak 29 neurriko ekintza-plan bat proposatu du. Neurri horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: alokairu babestuko etxebizitzak eraikitzea; baserriak birgaitzeko sustapena egitea eta alokairuetarako udal-dirulaguntzak handitzea, batez ere hainbat profiletako gazte eta familientzat.

Alokairurako eta gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak

Neurri nabarmenetako bat, lehen aldiz alokairurako laguntza programa abiatzea izan da, 18 eta 35 urte bitarteko gazte astigartarren emantzipazioa errazteko. Laguntza ez da bateragarria beste erakunde batzuen. Udalak

30.000 euro bideratuko ditu horretarako eta hilean 300 eurorainoko zenbatekoa izango du, eskatzailearen diru-sarreraren arabera. Astigarragako batez besteko alokairua hilean 878 eurokoa da, eta, beraz, 850 eurorainoko alokairuak diruz lagunduko dira.

Etxebizitza turistikoaren erregulazioa

Etxebizitzak pisu turistiko bihurtzea da Udalak jorratzea erabaki duen beste gai bat. Mota honetako erabilera mugatzeko hirigintza araudiak berrikusten ari dira. Etxeetako jabe-komunitateei informazioa eman zaie beren komunitateen barruan jardura turistikoa arautzeko aukerekin, bizilagunei beren etxebizitzaren erabilera kontrolatzeko tresnak emanaz.

Bidalitako komunikatuan, Udalak azpimarratzen du jabeen batzordeek erabilera turistikoa debekua adosteko ahalmena dutela. Aldi berean,

etorkizunean pisu turistikoak murriztu edo debekatzeko HAPOan aldaketak prestatzen ari da Udala, baina bitartean, etxebizitza eskubidea babesten eta etxeak etxe izaten jarraitzea bermatzen laguntzeko eskatu die herritarrei. Horrez gain, alokairu horiek bizilagunei eragozpenak sor diezazkietela ere gogorarazi du, eta garrantzitsua dela orain jardutea herriaren eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea zaintzeko.

Berrikuntza etxebizitza-parkearen kudeaketan

Udalak kudeaketa-aplikazio berri bat diseinatu du, etxebizitza-parkearen administrazioa eta kontrola errazten lagunduko duena. Tresna horri esker, etxebizitzaren egungo egoerari buruzko informazio zehatza bildu ahal izango da eta horrek aukera emango du etxebizitzaren arloko etorkizuneko erabakiak hartzeko eta plangintza hobetzeko.

Astigarraga refuerza su política de vivienda con nuevas medidas

El Ayuntamiento de Astigarraga ha puesto en marcha un conjunto de medidas para hacer frente a la creciente presión sobre la vivienda en el municipio, especialmente agravada por su proximidad a Donostia. Entre las acciones destacan la solicitud al Gobierno Vasco para declarar Astigarraga como zona tensionada, la puesta en marcha de ayudas al alquiler para jóvenes y la regulación de las viviendas turísticas.

La solicitud de zona tensionada se basa en un estudio que refleja la dificultad de acceso a la vivienda y el aumento del 23,1% en los precios del alquiler entre 2017 y 2022. Para afrontar esta situación, el Ayuntamiento ha impulsado un plan con 29 medidas, entre las que se incluyen la construcción de viviendas en alquiler protegido, el fomento de la rehabilitación de caseríos y un programa de ayudas al alquiler para jóvenes de entre 18 y 35 años.

En cuanto a las viviendas turísticas, se están revisando las normativas urbanísticas para limitar su expansión. Además, se ha informado a las comunidades vecinales sobre su capacidad para regular esta actividad en sus edificios, mientras el Ayuntamiento avanza en modificaciones del PGOU para restringir o prohibir estos alquileres a medio plazo.

Por último, el Ayuntamiento ha desarrollado una nueva aplicación para mejorar la gestión del parque de viviendas, permitiendo obtener datos más precisos y optimizar la planificación de futuras políticas de vivienda en el municipio.



Euskaltegiak eta Udal Zerbitzuek lokal berriak izango dituzte

Bi lokal berri zabalduko ditu udalak. Bata euskaltegia izango da eta bestea udal zerbitzuetarako bulegoak. Egun, proiektua idazteko prozesuan dago eta epe motzean jasoko ditu udalak exekuzio proiektuak.

Proiektuak oraindik amaitzeko dauden arren, Udalak jakinarazi ditu lokal berrien inguruko lehenengo xehetasunak. Euskaltegiaren guneari dagokionez, Nabarra Oinatz kaleko 11 zenbakian kokatuko da. Hau, aurretik Haurreskola izan da eta gaur egun Herri Eskolak erabiltzen du. Egun, AEK euskaltegiak Nabarra Oinatz 3 atariaren ondoan dagoen lokala eta kultur etxe zaharreko gela batzuk erabiltzen ditu. Proiektu honi esker, euskaltegia gune bakarrean bateratuko da. 304,42 metro karratu erabilgarri izango ditu eta honako espazioak barne hartuko ditu: sarrera, irakasleen gela, autoikaskuntzarako gela, lau ikasgela, areto nagusia, komunak, office-a eta sukaldea, biltegia eta instalazio gela.

Egokitu den bigarren lokala Nabarra Oinatz kaleko 3 eta 5 zenbakien behe solairuetan kokatuko da. Egoitza

horiek Herri Eskolaren jarduerarako eta gizarte-zerbitzuen arloan eskuhartze sozioedukativo eta psikosozialak egiteko erabiltzen dira orain. Berritzen lanen ondoren, ongizate arloko udal zerbitzuak kokatuko dira: Tokiko Garapena, Berdintasuna eta Parte-hartzea, eta Gizarte Zerbitzuak. Gaur egun, zerbitzu horiek hainbat udal eraikinetan banatuta eskaintzen dira. 182,92 metro karratu erabilgarri izango ditu ondorengo guneetan banatuta: harrera, komunak, Gizarte Zerbitzuen bulegoak, adin txikikoen eta familien arretako bulegoak, Berdintasun Saileko bulegoa eta Tokiko Garapen Saileko bulegoa, office-a eta bilera gela.

Proiektua guztiz osatzeke dagoenez, oraindik ez da aurrekontu zehatzik finkatu. Ekimen honen xedea da udalerriko guneak berritu eta zerbitzu onenak eskaintzeko espazioak sortzea.



El euskaltegi y los Servicios Municipales de Bienestar Social tendrán nuevos locales

El Ayuntamiento se encuentra en proceso de redacción de un proyecto para reformar y abrir dos nuevos locales. Estos estarán destinados a ofrecer servicios dirigidos a la ciudadanía. Por un lado, uno de los locales acogerá el nuevo euskaltegi, unificando, de esta manera, los actuales espacios ubicados en Nabarra Oinatz 3 y en la antigua casa de cultura en un único local situado en Nabarra Oinatz 11 que actualmente utiliza la Herri Eskola. En total, el local tendrá 304,42 metros cuadrados útiles que incluirán, entre otros espacios, cuatro aulas, un aula de autoaprendizaje y una sala principal.

Por otro lado, se reformarán los locales de los bajos de los números 3 y 5 de la calle Nabarra Oinatz. Se convertirán en un espacio unificado en el que se situarán los servicios municipales de bienestar social: desarrollo local, igualdad y servicios sociales. Actualmente estos servicios se ofrecen en oficinas ubicadas en distintos espacios de la localidad. El objetivo de este proyecto es unificar todos ellos en un mismo lugar. En total, el local dispondrá de 182,92 metros cuadrados útiles y contará con diferentes espacios: servicios sociales, atención a menores y familias, igualdad, y desarrollo local.



Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko, zer neurri zehatz har daitezke Astigarragan?

¿Qué medidas concretas se pueden adoptar en Astigarraga para hacer frente al problema de la vivienda?

Etxebizitza eskuratzeko erronka nagusietako bat bihurtu da Astigarragan, eta eragin nabarmena izan du gazterian, familietan eta udalerrian bizi nahi dutenengan. Eskariak aise gainditzen du eskaintza, eta horrek zaildu egiten du konponbide eskuragarriak eta iraunkorrek aurkitzea. Udalerriko ordezkari politikoek beren proposamenak partekatzen dituzte arazo horri aurre egiteko:

El acceso a la vivienda se ha convertido en uno de los principales retos en Astigarraga, con un impacto significativo en la juventud, las familias y quienes buscan establecerse en el municipio. La demanda supera con creces la oferta, lo que dificulta encontrar soluciones asequibles y sostenibles. La representación política del municipio comparte sus propuestas para abordar esta problemática:

Xabier Urdangarin
EHBildu

Neurri asko hartu behar dira, baina norabide bakarrean

Etxebizitza arazo larria bihurtzen ari da eta irtenbidea ez da bide eta neurri bakarrekin etorriko. Neurri asko behar dira, baina norabide argi batekin: etxebizitzak bizitzeko dira, bertako jendea herrian bertan bizi ahal izateko eta bere proiektu pertsonala garatzeko. Norabide horretan etxebizitza inbertsio gisa erostea edo erabilpen turistikoa ematea, zilegi izanik ere, bigarren mailakoak dira.

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko 29 neurri jasotzen dituen plana onartu du Udalak. Batzuk epe laburrean garatzeko dira, beste batzuk epe luzeagoa beharko dute. Hona hemen aipagarrienak:

- Plan orokorraren berrikuspenean, alokairu babestuko etxebizitzak eraiki ahal izateko lur-sailak aurreikustea.
- Tipologia eta tamaina txikiagoko etxebizitzak aurreikustea (etxebizitza bat eskatzen duten pertsonen %66 inguru pertsona bakarreko familia unitateak dira).
- Baserrien birgaitzea sustatzea, neurri fiskalak aplikatuz eta araudi urbanistikoa egokitzuz eguneratze eta eraberritzeak errazteko.
- Alokairua ordaintzeko udal-dirulaguntzak areagotzea, gazteentzako zein familia mota desberdinetarako.
- Etxebizitza hutsei kanona aplikatzeko prozedura lantzea.
- Alokairu turistikoa debekatzea.
- Apurka-apurka bada ere, lurzoru eskubide egoeran dauden etxebizitzak eskuratzeko.
- Etxebizitza hutsak alokairura ateratezen lortzea (une honetan Astigarragan etxebizitza parke osoaren %6 inguru etxebizitza hutsak dira (196 etxebizitza; Astigarragan guztira 3.362 etxebizitza daude), sustapen programen bidez.

Maria Otaegi
EAJ-PNV

Ale honetarako EAJ-PNVk ez du iritzirik bidali.

Patxi Suarez
PSE-EE

Etxebizitza arazo bat da familia askorentzat estatu osoan, eta Astigarragan ez gaude egokira horretatik salbuetsita, hazkunde demografikoaren datuek edo alokairuaren batez besteko errenta 2016tik % 25,9 igo izanak erakusten duten bezala, 878,9 eurotan errenta kokatuz.

Astigarragan lan egin behar dugu herritarrei irtenbideak eskaintzeko, eta etxebizitza eskubide gisa tratatzeko, ez ondasun gisa; kontuan hartuta hainbat motatako neurriak aplikatu behar direla, hala nola alokairua arautzea, pizgarri fiskalak edo eraikitzea.

Neurriek erakunde arteko lankidetzatik igaro behar dute, esate baterako, hiri tentsionatuaren izendapena eskatzea edo Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza hutsen kanona aplikatzea, lankidetzako publiko-privatua ahaztu gabe, edo etxebizitzarako lurzoruen kalifikazioa aztertzea, biztanleria gero eta gazteagoa duen herrian.

La vivienda es un problema para muchas familias en todo el país, y en Astigarraga no estamos exentos de esta situación, como muestran los datos de crecimiento demográfico o el incremento de la renta media de alquiler en un 25,9% desde 2016, situándola en 878,9 €.

Desde Astigarraga debemos trabajar para ofrecer soluciones a la ciudadanía, y tratar la vivienda como un derecho, no un bien; teniendo en cuenta que debe aplicarse una batería de medidas de diverso tipo como la regulación del alquiler, incentivos fiscales o la construcción.

Estas deben pasar por la colaboración interinstitucional, como por ejemplo la petición de denominación de zona tensionada o la aplicación del canon de viviendas vacías del Gobierno Vasco, sin olvidar la colaboración público-privada, o estudiar la calificación de suelo para vivienda, en una población cada vez más joven por su incremento demográfico.

Otsailak 27

📍 Astigarragako Emakumeon Etxean

🕒 17:30

Sareak ehuntzen, erresistentzia sortzen

Donostiako Emakumeen Etxearen ibilbideari buruzko erakusketaren aurkezpena Julia Costa eta Maren Lasarekin

✳ Erakusketa martxoaren 27ra arte ikusgai egongo da etxearen ordutegi barruan

Martxoak 5

📍 Erribera kulturgunean

🕒 17:00

Haur-jolasa jostailu ez-sexisten inguruan.

Martxoak 7

📍 Gaztelekuan

🕒 17:00-19:00

Feminitate tailerra nerabeentzat

Ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea

📍 Erribera kulturgunean

🕒 19:00

Zinema: **Romper el círculo**

Martxoak 9

📍 Erribera kulturgunean

🕒 19:00

Zinema: **Soy Nevenka**

Martxoak 14

📍 Gaztelekuan

🕒 17:00-19:00

Maskulinitate tailerra nerabeentzat

Ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea

📍 Astigarragako Emakumeon Etxean

🕒 18:00

Zineforuma: **La boda de Rosa**



Martxoak 8

📍 Astigarragako Emakumeon Etxean

🕒 10:00-12:00

Emakumeak, bidaiatu nahi?

Esperientziak partekatzeko solasaldia

🕒 12:30

Vermouth feminista musikatua

🕒 14:00

Bazkaria. Izen-ematea Emakumeon Etxean Ondoren bazkaloste girotua

📍 Gaztelekuan

🕒 17:00-20:00

Tailerra: Tote bag-ak tuneatu

Izena eman beharko da martxoak 6a baino lehen whatsapp edo instagram bidez

📍 Joseba Barandiaran Plazan

🕒 18:00

Elkarretaratzea

📍 Erribera kulturgunean

🕒 19:00

AMAK antzerkia

Martxoak 15

📍 Txominenea pilotalekuan

🕒 16:30-18:30

Euskal Herriko emakumeak ezagutzeko ginkana, 7-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, Txominenea pilotalekuan. Parte-hartze mugatua. Izen-ematea taldea osatu arte martxoak 11ra arte: berdintasuna@astigarraga.eus / tel. 638206586

Martxoak 21

📍 Erribera kulturgunean

🕒 19:00

Josune Muñozen hitzaldia

(Skolastika): La vida y obra de GLORIA STEINEM

Martxoak 27

📍 Erribera kulturgunean

🕒 18:30

Zinema: **Las glorias**

Martxoak 28

📍 Erribera kulturgunean

🕒 19:00

SUDUR GORRIAK

antzerki amateurra

Apirilak 4

📍 Erribera kulturgunean

🕒 19:00

Crochet elkarretaratzea

("freedom teknika" ikasteko).

Ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea.

Gora borroka feminista!

